



**ADINEKOAK ETA GIZARTE-KONEXIO  
DIGITALA. GIPIZKOAKO ERONKETARAKO  
HURBILKETA.**

---

*Azken txostena*

Laguntzailea:



2020ko azaroa



## **AURKIBIDEA**

1.	SARRERA	5
2.	METODOLOGIA	7
3.	KOPURUAK	12
3.1.	INTERNETERAKO SARBIDEA	12
3.2.	ERABILITAKO ZERBITZUAK	14
3.3.	BILAKAERA	16
4.	GIZARTE-KONEXIO DIGITALA	17
4.1.	ERABILERAK	18
	WhatsApp eta bideodeiak, gizarte-konexioa.	18
	Mahai gaineko ordenagailua.	20
	Telefono mugikor konbentzionala.	20
4.2.	IRRIKAK	22
	Konektatzea... konplikaziorik gabe.	22
	Premiak praktikatik ebaztea.	22
	Aisia, kultura eta gehiago.	23
4.3.	ERRONKAK	25
	Kultura-transformazioa (transformazio azkarra).	25
	Ahalduntzerik eza.	29
	Gizarte-diseinurik gabeko teknologia.	32
	Segurtasun-gabezia digitala.	33
5.	LABURPENA ETA ONDORIOAK	36
	ERANSKINAK	38
	BIBLIOGRAFIA	38
	ELKARRIZKETAREN GIDOIA	39
	FOCUS GROUPERAKO GIDOIA	41



## 1. SARRERA

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak —eskura dauden gailuak eta aplikazioak— eta horiek erabiltzeko behar diren gaitasun digitalak lagungarriak dira adineko pertsonen autonomiarako, baita diseinu sozialean oinarritutako produktuen eta zerbitzuen garapenerako ere.

Hartara, adinekoen eta haien gizarte-konexio digitalaren inguruko ezagutza bideratu beharko da adinekoen autonomia pertsonala lortzera eta, ingurune orokorrean eta komunitarioan, zereginak betetzen laguntzera<sup>1</sup>. Esparru horretan, parte-hartze soziala kate gisa ulertuko da, eta pertsonak kate horretan "funtzionatu" beharko du eta, bere gaitasunetan edo beharrezko laguntzetan oinarrituta, bizi eta moldatu ahal izango du. Are gehiago, kontuan hartzen bada euskal erakunde nagusien borondatea dela adineko pertsonentzako gizarte kohesionatu, parte-hartzaile eta atseginak eraikitzea.

Haatik, gaur egun ez dakigu zein den arlo horretako errealitatea. Gizartearen digitalizazioa eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera zehazteko hurbilketak egin badira ere, ez dago arlo horretan adineko pertsonen buruzko funtsezko informaziorik.

Covid-19aren osasun- eta gizarte-krisialdia benetan erabakigarria izaten ari da herritar guztientzat teknologiaren arloan, baina bereziki adineko pertsonentzat. Adineko askok behin betiko bultzada izan dute digitalizaziora bidean, batez ere smartphonearekin eta WhatsApp aplikazioarekin.

---

<sup>1</sup> Osasunaren Mundu Erakunde (2001): Funtzionamenduaren, Desgaitasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapena.

Ezinbestekoa da adinekoen gaitasun digitalak modu kualitatiboan ezagutzea; izan ere, hilabete gutxiren buruan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezinbesteko elementu bihurtu dira senideekin, lagunekin eta komunitatearekin lotura minimoa eta segurua izateko, lehentxeago produktu eta zerbitzuetarako euskarri gutxi-asko baztergarriak zirenean.

Hori dela eta, planteatzen da Gipuzkoako adineko pertsonen gizarte-konexio digitalaren errealitaterako lehen hurbilketa hau. Helburua da adinekoen gaitasun digitalak, erabilerak, irrikak eta zailtasunak ezagutzea, pertsonak konektatuta mantenduko dituen eta sare komunitarioa mantenduko duen gaitasun digitala bultzatzeko, inor atzean utzi gabe.

Hain zuzen ere, egindako hurbilketarekin, norbait atzean uzteko arrisku horri jarri behar diogu arreta, arrisku hori baitago hurbileko pertsonekin komunikatzeko zailtasunak izaten hasten direnekin eta kultura-agendak eskuratzeko edo osasuna edo finantza-zerbitzuak bezalako oinarrizko zerbitzuak baliatzeko zailtasunak izaten hasten direnekin.

***Adinekoen gaitasun digitalak ezagutu beharko ditugu, haien gizarte-konexio digitala errazteko eta ingurune atseginak, produktuak eta zerbitzuak hobeto orientatzeko.***

APTES Gizarte Teknologia Sustatzeko Elkarteak —elkartearen xedeak adierazten duenez— eta gizarte-ekimeneko beste erakunde batzuek asmo osoa dute Gipuzkoan, esku hartzeko programak diseinatu eta garatzerakoan, ezagutza partekatu hori izan dezagun eta inor ez dezagun atzean utzi, eskura ditugun tresna teknologikoen diseinu eta erabilera desegokiaren ondorioz.

## 2. METODOLOGIA

Gipuzkoako adineko pertsonen teknologiarekin duten harremanetarako hurbilketa hori —erabilerei, irrikeri, arriskuei eta gizarte-konexioan duten eraginari dagokienez— hiru zutabetan oinarritzen da: bigarren mailako iturrien analisia, gutxi gorabehera kuantifikatzen saiatzeko; sakoneko elkarrizketa pertsonalak; eta Focus Group-ak, funtsezko eragileekin eta adinekoekin.

### A. Bigarren mailako iturrien analisia.

*Errealitaterako hurbilketa kuantitatibo gisa, Gipuzkoako adinekoei buruzko eta adineko horiek egiten duten teknologien erabilerari buruzko zenbait datu hartu dira.*

- Eustat (2018). Informazioaren gizartearen panorama.
- Orkestra – Deustuko Unibertsitatea (2019). Ekonomia eta gizarte digitalak Euskal Autonomia Erkidegoan.
- Matia Fundazioa, Institutu Gerontologikoa (2020). Bakardadeak txostena.
- Arias Fernández, E., Lirio Castro, J., Alonso González, D., Herranz Aguayo, I. (2018). Acceso y uso de las TIC de las mujeres mayores de la Europa Comunitaria. Prisma Social aldizkaria. 21. zk.

### B. Elkarrizketa pertsonalak (10).

*Elkarrizketa pertsonal sakona, pertsonen beraiek aditzera emandako erabilerak, irrikak eta zailtasunak biltzeko teknika gisa.*

- Telefono bidezko 10 elkarrizketa. Proiektuaren pilotatze-taldean identifikatutako zenbait profiletako adineko pertsonen

egindakoak, 2020ko ekainean eta uztailean.

Elkarrizketak	Adina	Populazioa	Bakarrik	Smartphone
Emakumea	71-80	Handia	Bakarrik bizi da	Smartphonerik ez
Gizona	71-80	Handia	Ez da bakarrik bizi	Smartphonerik ez
Gizona	>80	Handia	Ez da bakarrik bizi	Smartphonerik ez
Emakumea	71-80	Handia	Bakarrik bizi da	Aldian behin erabiltzen du
Emakumea	>80	Handia	Bakarrik bizi da	Smartphonerik ez
Gizona	<70	Ertaina	Bakarrik bizi da	Smartphonerik ez
Gizona	<70	Ertaina	Ez da bakarrik bizi	Erabilera handia
Emakumea	71-80	Ertaina	Bakarrik bizi da	Erabilera handia
Emakumea	>80	Txikia	Bakarrik bizi da	Erabilera handia
Emakumea	71-80	Ertaina	Ez da bakarrik bizi	Aldian behin erabiltzen du

### C. Focus Group (3).

*Focus Group edo talde-elkarrizketa, batetik funtsezko eragileei egindakoa, proiektuaren helbururako interesgarriak diren gaiak detektatzeko, eta, bestetik, adineko pertsonen beraiei egindakoa, elkarrizketetan sortutako funtsezko alderdietan sakontzeko.*

- I. focus groupa. Focus birtuala Gipuzkoako funtsezko eragileekin,



Nagusilanez datozen pertsonekin, Donostiako Udaletik datozenekin —Donostia Lagunkoiaren bidez eta Gizarte Ekintzako Departamentuaren bidez (Donostiako Pertsona erretiratuen elkarteei lagunkoiago izateko behar duten laguntza teknikoa emateko eta lagun egiteko zerbitzua)— eta Eusko Federpenetik datozenekin. 2020ko maiatza.

- II. focus groupa. Focus presentziala Eibarren, teknologiarekin harreman desberdina duten 7 adinekoekin. 2020ko iraila.
- III. focus groupa. Focus presentziala Donostian, teknologiarekin harreman desberdina duten 6 adinekoekin. Digitalizazio-maila desberdineko adineko pertsonek hartu dute parte. 2020ko urria.



I. focus groupa. Gipuzkoako funtsezko eragileak. 2020ko maiatza.



II. focus groupa. Jubiletxe elkarte, Eibar. 2020ko iraila.

<b>II. focus groupa</b>	<b>Adina</b>	<b>Teknologiaren erabilera</b>
Gizona	91	Smartphonea, zailtasun handiz.
Emakumea	83	Ordenagailuak, Smartphonea eta WhatsApp.
Emakumea	82	Smartphonea eta WhatsApp.
Gizona	73	Mugikor tekkladuna soilik PCa etxean.
Gizona	71	Smartphonea eta WhatsApp.
Gizona	73	Smartphonea eta WhatsApp.
Emakumea	65	Handia.



III. focus groupa. Guardaplata elkarte, Donostia. 2020ko urria.

<b>III. focus groupa</b>	<b>Adina</b>	<b>Teknologiaren erabilera</b>
Gizona	71	Tableta / WhatsApp.
Gizona	74	WhatsApp.
Emakumea	83	Mugikor tekladuna.
Emakumea	77	WhatsApp.
Emakumea	79	WhatsApp.
Emakumea	83	Facebook / WhatsApp / teleasistentzia pribatua.

## 3. KOPURUAK

### 3.1. INTERNETERAKO SARBIDEA

Euskadi herri digitala da, populazioaren % 86k, gutxi gorabehera, Internet erabiltzen du. Ehuneko hori Estatuaren eta Europar Batasunaren batez bestekoaren gainetik dago. Albisteak irakurtzea (% 66) eta sare sozialetan aritzea (% 54) dira ohiko erabilerak<sup>2</sup>. Hortik aurrera, eskura dauden inkestetako datuek Gipuzkoako adineko pertsonen gaitasun digitalei buruzko informazio zehatza eta eguneratua eman ezin badute ere, aukera ematen digute, gutxienez, 55 urtetik gorako pertsonen gaitasunen bilakaera ezagutzeko eta beste magnitude batzuk ezagutzeko.

Gaitasun digitalei dagokionez, kontuan hartu beharreko lehen datua da Gipuzkoan 55 urtetik gorako 134 mila pertsonak baino gehiagok —% 49k<sup>3</sup>— Internet erabili zutela 2018an.

#### **Gipuzkoan Internet erabiltzen duen populazioa osoa (15 urte eta gehiago) eta 55 urtetik gorakoa (2018).**

	<b>kopurua, milatan</b>	<b>%</b>
Adin guztiak	475,90	% 67
+ 55 urte	134,70	% 49

Iturria: bertan landua, "Biztanleen udal-estatistika" eta "Informazioaren gizartearen inkesta" (EUSTAT 2019) kontuan izanik.

<sup>2</sup> "Ekonomia eta gizarte digitalak Euskal Autonomia Erkidegoan" (Orkestra – Deustuko Unibertsitatea 2019).

<sup>3</sup> "Biztanleen udal-estatistikan" eta "Informazioaren gizartearen inkestan" oinarritutako datuak (EUSTAT 2019).

Berriki egindako azterketa batek<sup>4</sup> —COVID-19aren aurretik egin zen azterketa horren landa-lana— aditzera ematen du 2020an % 67raino igo dela Gipuzkoan Interneterako sarbidea duen 55 urte baino gehiagoko populazioaren ehunekoa. Azterketa horrek berak Interneterako sarbideei buruzko datuak ematen ditu, sexuaren eta adinaren arabera. Ikus daiteke gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino gehiago direla Interneterako sarbidea dutenak (% 72 eta % 63 hurrenez hurren)<sup>5</sup>. Era berean, 55 eta 64 urte arteko pertsonen artean Interneterako sarbidea dutenak 80 urteko pertsonen artean dutenak baino gehiago dira (% 89 eta batere txikia ez den % 23, hurrenez hurren). Inkesta horretako beste datu interesgarri bat da Interneterako sarbidea askoz ere txikiagoa dela bakarrik sentitzen diren pertsonen artean (sentimendu subjektiboa) (% 49) bakarrik sentitzen ez direla esaten dutenen artean baino (% 69).

---

<sup>4</sup> Bakardadeak txostena (Matia Fundazioa, Institutu Gerontologikoa, 2020).

<sup>5</sup> "Oro har, maskulino gisa ezaugarritzen diren espazio horiez kanpo sentitzen dira emakumeak, eta ez dira hain seguru sentitzen". "Acceso y uso de las TIC de las mujeres mayores de la Europa Comunitaria" 2018, Prisma Social aldizkaria, 21 zk.

## 3.2. ERABILITAKO ZERBITZUAK

WhatsApp da 55 urtetik gorako pertsonen gehien erabiltzen duten Interneteko tresna, eta ondoren datoz posta elektronikoa, hedabideen kontsulta eta ondasun eta zerbitzuen kontsulta. Internet askoz gutxiago erabiltzen da banka elektronikoko zerbitzuetarako, aisiarako, kulturarako, eta osasunari eta administrazioari buruzko informaziorako. Azkenik, gutxiengo txiki batek erabiltzen ditu sare sozialak. Harremanen ikuspuntutik, WhatsApp funtsezko tresna da eta gaurkotasun handikoa gizarte-konexioan.

**Gipuzkoan 55 urtetik gorakoek Interneten gehien erabiltzen dituzten zerbitzuak (2018).**

Zerbitzua	%
Guztira	% 49
WhatsApp edo beste mezularitza-aplikazio batzuk	% 43
Posta elektronikoa	% 32
Hedabideak	% 29
Ondasunei eta zerbitzuei buruzko informazioa	% 28
Banka elektronikoa	% 21
Aisia-zerbitzuak	% 18
Administrazioaren informazioa	% 17
Osasunaren informazioa	% 16
Liburutegiak eta dokumentazioa	% 13
Ondasunen eta zerbitzuen erosketak	% 12
Sare sozialak	% 11
Turismo-erreserbak	% 11
Hodeian biltegitzeko espazioa	% 7
Formulario ofizialen deskarga	% 7

Betetako formularioen bidalketa	% 7
Txatak, elkarrizketak	% 6
Telefonoa, bideokonferentziak	% 5
Fitxategien transferentzia (ftp)	% 5
Kontsumitzaileen eskubideak	% 4
Mugikorretarako mezuak	% 4
Museo birtualak	% 3
Enplegua bilatzeko kudeaketak	% 3
Beste ikastaro batzuk	% 2
Matrikulazioak eta kontsulta akademikoak	% 2
Ondasunen eta zerbitzuen salmenta	% 1
Hezkuntza arautua	% 1
Enplegua bilatzeko ikastaroak	% 1

Iturria: bertan landua, "Biztanleen udal-estatistika" eta "Informazioaren gizartearen inkesta" (EUSTAT 2019) kontuan izanik.

### 3.3. BILAKAERA

---

Bilakaera aztertzeak aukera ematen digu informazioaren eta komunikazioaren teknologien —eskura ditugun gailuen eta aplikazioen— joerak aurreikusteko eta datozen erronkei aurrea hartzeko; hartara, teknologia horiek erabili ahal izateko beharrezkoak diren gaitasunak aurreikusi ahal izango dira, gaitasun horiek izugarri aldakorrak baitira, eta berehala ezartzen baitira.

Zenbait iturri alderatzeak eskatzen duen zuhurtziaz, aditzera eman daiteke Gipuzkoan 55 urtetik gorako gero eta pertsona gehiagok erabiltzen dutela Internet, eta nabarmen gainera; izatez, 3 urtetan % 43tik % 67ra pasa da.

WhatsApp aplikazioen erreginak oso hazkunde handia izan du azken 3 urteotan, eta 55 urtetik gorako pertsonen % 59k erabiltzen du.

#### Gipuzkoan Interneten erabileraren bilakaera 55 urtetik gorako artean

Erabilera	2017	2018	2020
Guztira	% 43	% 49	% 67
WhatsApp	% 35	% 43	% 59

Iturria: 2017ko eta 2018ko datuak, bertan landuak “Biztanleen udal-estatistikan” eta “Informazioaren gizartearen inkestan” oinarrituta (EUSTAT 2019). 2020ko datuak Bakardadeak txostenean oinarrituta (Matia Fundazioa, Institutu Gerontologikoa, 2020).



## 4. GIZARTE-KONEXIO DIGITALA

Adineko pertsonekin eta funtsezko eragileekin egindako elkarrizketa sakonetatik eta focus groupetatik abiatuta —[Metodologia](#) atalean kontsulta daiteke horien profilen laburpena— egin da konexio digitalari buruzko hurbilketa eta gogoeta. Egindako esku-hartzeak kualitatiboak izan direnez gero, hurrengo ataletan kontua ez da izango Gipuzkoan adineko pertsonen konexio digitalaren erabilera, irrika eta zailtasunen edo arriskuen sintesi partekatuaren argazki hutsa egitea, baizik eta konexio hori errazten lagunduko duten giltzarriak identifikatzea, betiere pertsonen berek hala nahi dutenean.

Hurbilketa horren irismenak ez du giltzarri horietarako erantzunak garatzeko biderik ematen, baina gure ustez hurbilketa hori baliozkoa izan daiteke lan honen bidez prozesu bat abiarazteko eta, prozesu horretan, giltzarri horiek Gipuzkoako adinekoen gizarte-konexio digitalean eragin positiboa eta adierazgarria duten ekintzetan gauzatzeko.

Ezinbestean eskerrak eman behar dizkiegu elkarrizketa sakon horiek egiteko Gipuzkoako adinekoen zenbait profilekin harremanetan jartzen lagundu digutenei eta kontraste-bileretan parte hartzeko erraztasunak eman dituztenei: Nagusilan, Donostiako Udala —Donostia Lagunkoiaren bidez eta Gizarte Ekintzako Departamentuaren bidez (Donostiako Pertsona erretiratuen elkarteei lagunkoiago izateko behar duten laguntza teknikoa emateko eta lagun egiteko zerbitzua)— eta Eusko Federpen.

## 4.1. ERABILERAK

---

Egindako hurbilketan, berresten da aldez aurretik genuen susmoa: konfinamenduak digitalizatzeraz bultzatu ditu adineko pertsona asko, baina ez guztiak. Covid-19aren krisiaren aurreko eta osteko egoera laburbiltzen da WhatsAppen hedapenaren igoeran eta bideodeiak egiteko tresnen erabileran. Hau da, teknologiaren bidez bilatzen da familiekin eta erreferentziazko taldeekin gizarte-konexioari eustea.

Azken hilabete hauetan, elkarrizketatutako pertsonak ikusi dute teknologia oso lagungarria izan zaiela pertsonen arteko harremanetarako, batez ere bakarrik bizi diren pertsonen kasuan.

*“Baliabide hauek apartak dira, ekarpen handia egiten dute eta asko laguntzen dute”.*

### **WhatsApp eta bideodeiak, gizarte-konexioa.**

*“Pandemiaren aurretik zenbait gauza ez genituen sekula ere egiten WhatsAppekin”.*

Argi dago teknologiak, azken aldian, gizarte-konexioa erraztu duela; hala berresten dute, hain zuzen ere, elkarrizketatutako pertsonen beraien esperientziak eta elkarrizketatuen inguruko errealitateak. Izatez, batzuek ez

dituzte teknologia horiek erabiltzen eta, oraingoz "ondo moldatzen" diren arren, onartzen dute komunikazio hori askoz ere errazagoa dela WhatsApp bidez.

WhatsApp ez duten pertsonen egoeraren zeharkako jarraipena ere jaso da —dei konbentzional bidez komunikatu da haiekin—, eta, ondoren, aplikazio honetako taldeetan partekatu da haien egoera.

*"Bideodeiak etorri eta bertan geratuko dira".*

Identifikatu da, azken hilabete hauetan, adineko asko hasi dela bideodeiak egiten, smartphoneak erabiliz zein ordenagailua erabiliz (WhatsApp, Skype...). Oro har, senitarteko gazteago batek konfiguratzeko aplikazioa eta irakasten die nola erabili.

*"WhatsApp primeran etorri zait pandemian, bakarrik ez gaudela sentiarazi digu... Zer izango zen pandemia WhatsApp gabe!".*

Izatez, elkarrizketatutako talde batek Covid-19aren aurretik sortutako WhatsAppeko talde bat erabili du, baina parte-hartzaileak gehitu zaizkio eta erabilera gehiago eman zaizkio; "Egun on eta gabon" agurtzeko hitzak esate hutsetik hasi, eta lehen hainbesteko harremanik ez zuten pertsonak sartu arte. Diotenez, mezu horiei esker, bakarrik ez daudela sentitzen dute.

*"Esnatzean, lehenik eta behin WhatsApp kontsultatzen dut, dauden mezuak ikusi, eta egun on batez agurtzen dut".*

WhatsAppeko taldeetan itxuraz garrantzirik ez duten mezuak ere eskertzen dira. Gizarte-konexioko minimo bat dira.

*“Hobe tontakeria bat irakurtzea ezer ez irakurtzea baino”.*

### **Mahai gaineko ordenagailua.**

*“Gero eta gutxiago erabiltzen dugu”.*

Aldi berean, batzuek Internetarako konexioa duen ordenagailua erabiltzen dute, eta askok informazioa —orokorra zein zehatza— bilatzeko besterik ez dute erabiltzen. Beste batzuek, aldiz, ordenagailua erabiltzen dute posta elektronikoa kontsultatzeko edo prestakuntzako kontsultak egiteko, bankako eragiketak on line egiteko... Era berean, konfinamenduan eta deskonfinamenduan, batzuei ordenagailua erabilgarria izan zaie jakiteko inguruko zein denda zeuden irekita, kiroldegia noiz irekitzen zen, eskolak eta bilerak noiz hasten ziren, programazio kulturala nola zegoen ...

Haatik, hedatuta dagoen baina, bildutako kasu askotan, gero eta gutxiago erabiltzen den teknologia bat da.

Bestalde, ez da korrelaziorik hautematen ordenagailuaren erabileraren (eta ezagutza informatikoen) eta smartphonearen erabileraren artean.

### **Telefono mugikor konbentzionala.**

*“Horrekin konpontzen banaiz, zergatik aldatuko dut?”*

Ia guztien abiapuntua da gailu mugikor ez-smartphone baten, hau da, telefono tekladun konbentzional baten oinarrizko erabilera menderatzea. Pertsona asko maila horretan geratzen dira, mundu digitalean murgildu gabe.

Telefono tekladun bat erabiltzea, baina ez smartphone bat, ez litzateke porrot gisa jo behar; izatez, askotan, lorpen bat da, norberaren gaitasunak garatzeagatik, eta, beste kasu batzuetan, norberaren beharrak asetzeagatik eta behar ez den teknologiarekin konplikatu nahi ez izateagatik.

Telefono tradizionalari esker, pertsona askok guztiz gogobeteta dute pertsonen arteko komunikazioa.

*“Ez dut smartphonerik; oraingoz ondo moldatzen  
naiz eta ez dut horren beharrik”.*

## 4.2. IRRIKAK

---

### **Konektatzea... konplikaziorik gabe.**

*"Nik deitzea eta niri deitzea".*

Teknologia, berez, ez da irrika bat; teknologiari erabilgarritasuna eskatzen zaio: pertsonen arteko konexioa. Harremani eta kontaktuei eustea da irrika, gizarte-konexioari eustea.

Ia ez da teknologiak asebate dezakeen irrikarik adierazten, beste pertsona batzuekiko konexioaz harantzago eta argazkiak denbora errealean partekatzeko edo bideodeia egiteko aukeraz harantzago.

Parte-hartzaile guztiek diote gogobeteta daudela gaur egun dituzten konexioekin. Iruditzen zaie gutxieneko elkarrizketa hori oso garrantzitsua eta baliotsua dela, mikrozaintza-sare bat antolatzen baita eta, nolabait, komunitate baten parte sentitzen baitira.

### **Premiak praktikatik ebaztea.**

*"Bizi ahala, hautematen dituzu zure premiak eta ikasten duzu".*

Teknologia modu arinean eta egokian erabiliko bada, ezinbesteko faktorea da teknologia horrek interesa piztea eta izango dituen erabilera praktikoak identifikatzea. Teknologia modu praktikoan erabiltzeko asmo argirik ez badago,

gaitasun digitalak eskuratzeko egin behar den ahaleginak itzulera txikia izango du eta, beraz, garapen mugatua izango du.

Premiarik hautematen ez bada, ez da gaitasunik ikasiko. Gaitasun digitalak eskuratzeko, uste osoa izan behar da gaitasun horiek beharrezkoak direla, horiekin komunikazioaren maiztasuna eta kalitatea handituko dela, eta ez dela zailegia izango. Komunikatzeko garaian teknologiaren premia hauteman ezean, zaila izango da gaitasun digitalak eskuratzea.

Konfinamenduan, gainera, hauteman da konexio digitala ordezeko bide bat dela eguneroko bizitzan beharrezkoak diren jarduerak egiteko, hala nola erosketak egiteko edo finantzak kontsultatzeko.

Hautemandako motibazio nagusiaren sintesia izan daiteke pertsona autosufiziente izaten saiatzea, atzean geratu gabe.

*“Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan egunean jartzen ez dena analfabetoa izango da XXI. mendean”.*

### **Aisia, kultura eta gehiago.**

*“Konfinamenduan meza jarraitzeko konektatzen nintzen Internetera”.*

Konektatzeko beharrekkin eta oinarrizko beharrekkin batera, beste alderdi motibatzaile batzuk ere badaude, esate baterako zaletasunak, kultura edo gaurkotasuneko albisteak jasotzea.

Hauek dira, beraz, Youtube, bilatzaileak, prentsa digitala, bideoen aplikazioak eta abar erabiltzeko motibazio bihurtzen diren irrika batzuk:

- Informazioa, albisteak bilatzea.
- Bidaiatzeko txartelak bilatzea.
- Jolastea (entretanimendua eta buruko jolasak).
- Errituak eta erlijio-informazioa jarraitzea.
- Ortografia hobetzea (testu-zuzentzaileekin).
- Eskelak irakurtzea.
- Abesti zaharrak entzutea.
- Dantzak ikustea.
- Jostura-bideoak ikustea.
- Sukaldaritzako errezetak ikustea.
- Jarraipen nutrizionala egitea, barra-kodeak irakurtzeko app-arekin.
- Egunean zenbat urrats egin diren jakitea.
- Zumba praktikatzea, bideoei bidez.



### 4.3. ERRONKAK

---

Aurreko kapituluan esaten zen ez-digitalizazioa ez dela porrot gisa ikusi behar, pertsona batek bere gizarte-konexiorako beharrak gogobeteta izan baititzake baliabide tradizionalekin, baita konfinamendu-garaian ere. Dena dela, oraindik ere badago digitalizatzeko nolabaiteko presioa, eta arazotzat jo behar da pertsonen irrikak aintzat hartzen ez direnean. Presio hori existitzen da, eta ez da soilik ingurune hurbilenak eragiten duen presioa; hortxe dago, adibidez, finantza-erakundeek egiten dutena, haien eragiketarik errazena egiteko smartphonea erabili eta menderatu behar baita.

Ez dago jarrera teknofoborik, ez dago informazioaren eta komunikazioaren teknologien gaitzespen orokorrik eta aurrez aurrekorik; teknologia horiek erabiltzen ez dituenak, askotan, ez du baztertzen uneren batean erabiltzen hastea. Izan ere, teknologiaren onurak hautematen dira, batez ere azken hilabeteotan, soluzioak eskaintzen baitituzte konfinamendurako, mugimendu-mugaketarako eta pertsonen arteko topaketen mugaketarako; alabaina, teknologia horiek erabiltzea eragozten duten errealitateak ere badaude.

#### **Kultura-transformazioa (transformazio azkarra).**

*"Zergatik ez dago adinekoentzako teknologiarik?"*

Konexio digitalaren inguruan hitz, kontzeptu eta jokamolde berriak biltzen dira, eta paradigma berriak hartu behar dira.

**Erantzunkidetasun digitalaren gabezia.** Mundu digitalean, mundu fisikoan bezalaxe, gauzak egiteko eta jokatzeko moduak daude. Batzuk zuzenak dira eta beste batzuk ez, baina mundu digitalean gertatzen dena hain da berria, gizarte-protokoloak oraindik adostu gabe dauden edo ezagutzen ez diren. Jokatzeko eta elkarreragiteko modu zuzenak ezagutu behar dira, eta erantzunkidetasunez egin beharko da. Albiste faltsuak hedatzea eta edukia hutsalakeriez betetzea praxis okerrak dira, eta adinekoek digitalizatzeko zailtasuntzat jotzen dituzte.

Izan ere, behin eta berriz errepikatzen den jarrera da teknologia gaizki erabiltzearen kritika, eta, zehatzago, WhatsApparen erabileraren kritika, batik bat hutsalakerien etengabeko bonbardaketaren ondorioz, edo, are gehiago, faltsuak diren albiste kezagarrien ondorioz. Berriki egin diren azterketetan ikusten denez, adinekoak dira albiste faltsuak gehien partekatzen eta zabaltzen dituztenak<sup>6</sup>. Horregatik, zabaltzen dena iragazteko erantzukizuna hartu behar da, eta hori norberaren erronka da. Teknologiaren erabilera oker hori dela eta, pertsona batzuek urrats bat atzera egin dute, "deskonexio teknologikoa" egin dute; smartphoneak erabiltzetik mugikor tekladunetara atzera egin dute.

*"Ni ez nago teknologiaren aurka, baina uste dut erabili behar denerako erabili behar dela, eta ez txorakerietarako".*

Azken batean, teknologia gaizki erabiltzea ez da soilik eduki garrantzitsuagoez

---

<sup>6</sup> Nadia M. Brashier, Daniel L. SchacterFirst (2020): Aging in an Era of Fake News.

aldentzen duen gustu hobea edo txarragoa izatearen "etiketa"-kontu hutsa; aitzitik, erantzukizun-kontua da, aldarte orokorrean eragiten baitu eta informazio-egoera toxikoa sortzen laguntzen baitu.

Gainera, teknologiarekiko jarrera kritikoek, askotan, teknologiak erabiltzearen ondoriozko ustezko deshumanizazioa dute oinarri, baina, egia esan, teknologiaren "erabilera okerraren" ondoriozko deshumanizazioa izango litzateke.

Teknologiaren erabilera egokiak erantzunkidetasun digitala eskatzen du, pertsonak hurbildu ditzan eta ez urrundu.

*"Teknologiaekin pertsonengandik urruntzen ari gara".*

**Edukitzetik erabilgarri izatera.** Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eta, bereziki, "hodeiaren" kontzeptuak "edukitzearen" ordeztu "erabilgarri izatearen" paradigma dakarte. Jada ez dute musikarik edo filmerik deskargatzen (ez daukate), streaming-ean ikusten dira (eskuragarri daude). Gauza bera gertatzen da argazkiekin, bideoekin, datuekin... Hala ere, horri buruz galdetu zaien adineko pertsona asko "edukitzearen" koordinatuetan daude, eta gauzak ikusteko modu hori funtsezko alderdia da eta aintzat hartu beharko da gaitasun digitalerako prozesuak diseinatzeko garaian.

*"Zergatik doa teknologia hain ziztu bizian?"*

**Ikasteko beste modu bat.** Memoriarekin fidatzera eta apunteak hartzera ohituta dagoen belaunaldi batentzat ez da erraza teknologia "digitala" ikastea. Arlo digital horretan, funtzio bera modu askotara egin daiteke, eta, gainera, egiteko moduak aldatu egiten dira gailuak eta aplikazioak eguneratu ahala. Ikasteko modu berrian, halaber, jabetu beharko da ekintzak desegin daitezkeela, abiapuntura itzul daitezkeela, gailuak fabrika-egoerara berrabiaraz daitezkeela. Logika horrek "proba/errorea" ikasteko moduaren logika elikatzen du, erroreak ez baitu ondorio handirik. Azkenik, ikasteko eta aldaketetara egokitzeko, funtsezkoa da galderak egiten jakitea eta dakitenengana jotzea, Interneteko baliabideetara jotzea. Gauzak egiteko moduak etengabe aldatzen dira, funtzio bera lortzeko modu asko daude, informazioa bilatzen jakin behar da, nola galdetu jakin behar da, huts egiten jakin behar da, urratsak atzera egiten jakin behar da... Ez dago eskuliburu finkorik, ez dago dena memoriaren esku. Azken batean, gaitasunak eskuratzeko modua ez da modu tradizionala; aro digitalean "ikasten ikasteak" ondo funtziona dezake belaunaldi batzuetan, baina zailagoa da beste batzuetan.

*"Duela 20 urte primeran moldatzen nintzen ordenagailuarekin ... Teknologia asko egin du aurrera, baina nik ez dut aurrera egiten".*

Desiragarria litzatekeen erritmoan ez ikastearen (ikasten ikastearen) ondoriozko frustrazioak eta transformazio digitalari aurre egiteko autoestimua txikiak konexio digitala oztopa dezakete.

*"Ez nago onenean, ez ulertzeko, ez ikasitakoa atxikitzeko ... Urduri jartzen naiz saiatzen naizenean".*

Zailtasun horien aurrean, prestakuntza edo laguntza eskatzen da ahalduntzeko,

trebatzeko eta digitalizazioarekin lotutako kultura-aldaketei aurre egiteko. Prestakuntza-eskaera oso handia da, eta, iritzi batzuen arabera, pertsonen eta telekomunikazio-enpresek horren kostua partekatu beharko lukete.

Prestakuntza horrek hurbilekoa, praktikoa eta oinarrikoa izan beharko du. Hurbilekoa, pertsonatik pertsonara, pareen arteko ezagutza trukatzeko ere erraztuz, eta taldeen ikuspegi itxia gaituz. Praktikoa, intereseko funtzioak berehala praktikan jartzea bilatuz. Oinarrikoa, hautemandako eta pertsonen beraiek eskatutako premietan oinarritua. Premisa horietatik abiatuta —eta gailua ukitzeko beldurrak eta nabigatzeko beldurrak gaituz lagunduz—, ondoren beste erronka batzuk planteatuko lirateke, hala nola beste sare edo pertsona batzuekin konektatzea.

*“Zenbat eta prestakuntza handiagoa, orduan eta segurtasun handiagoa”.*

### **Ahalduntzerik eza.**

*“Nik ez nuen smartphone bat nahi, baina...”.*

**Digitalizatzeko erabakia ez da subiranoa.** Ohikoa da smartphone bat "nahitaez" daukan norbaitekin topo egitea, bai elkarte batean erantzukizunak izateagatik, bai familia- eta lagun-ingurunearen nolabaiteko presioagatik. Orduan, erabilera minimoa eta, ustez, erraza planteatzen da: gutxitan piztea, jarduera edo albiste interesgarriren batekin zuzenean lotutako mezuren bat dagoen ikusteko.

*"Nire seme-alabek telefono bat erosi nahi zidaten,  
baina beti egiten dut atzera".*

Jasotako bultzadari nolabaiteko erresistentzia kontrajartzen zaio, askotan lotzen dena teknologia erabiliz gero gerta daitekeen kontrolik ezarekin, jakinarazpenen saturazioarekin, garrantzitsua dena eta hutsala dena nahastearekin, merezi ez duten zereginetan konplikatzearekin; hau da, askotan smartphonea lotzen da bizimodu lasaia zailtzen duen zerbaitekin. Eta jendeak bizimodu lasaia nahi du.

*"Erabaki dut ez dudala WhastAppa nahi, patxadaz  
bizi nahi baitut".*

Bestalde, erakunde publiko eta pribatuek, haien digitalizazio-politiken ondorioz, adineko pertsonengan duten eragina kritikatzeko da. Ildo horretan, ezartzen diren erritmo handiak gaitzesten dira; estrategiak izan beharko luke bereiztea nor den autonomia eta nor ez.

*"Zergatik doa teknologia hain azkar?"*

Elkarrizketetan, adinekoek adibide gisa jartzen dute finantza-entitateen erritmo teknologikoari jarraitzeko zailtasuna.

*"Finantza-entitateek prestakuntza eta informazioa  
eman behar ziguten; txartelak eta kutxazain  
automatikoak erabiltzeko presionatu gaituzte ... Eta  
esaten digute "Arraioa! Noiz ikasiko duzue kutxazain  
automatikoak erabiltzen?"*

**Ahalduntze materiala behar da.** Ahalduntzerik eza **baldintza materialetan** ere gerta daiteke.

Gailu zaharkituztat jotzen da haren egitekoa betetzen ez duena eta atsekabea sortzen duena. Soiltasuna ezaugarri duen belaunaldi batek gailu sinpleak bilatzen ditu, "haien funtzioa" betetzen dutenak eta "deiak egiteko eta ezer gutxi gehiagorako" balio dutenak, eta aparatuak urte asko irautea nahi du. Gailu horiek gama txikikoak dira, edo, askotan, gama txikikoak ez izan arren, senitartekoek baztertu egiten dituztenak. Izatez, gailu horien memoria laster betetzen da edo biltegiatze-ahalmena laster egoten da gainezka, eta ez dute autonomia fidagarririk eskaintzen. Horien erabilerak ez du gogobetetzen eta frustrazioa sortzen du.

"Funtzionatzen ez duen" gailu zaharkitu bat edukitzeak frustrazioa eragiteaz gain, gailua zaharkitzeak zerbitzu garrantzitsuetara sartzea eragotz dezake, adibidez, Radar Covid aplikazioak eskaintzen duen zerbitzura sartzea —aplikazio horrek 5 urtetik beherako antzinatasuna duten smartphoneak eskatzen ditu (Android 6.0 edo geroagokoa, iOS 13.5 edo geroagokoa).

*"Batzuek ez dute Internet pagatzeko modua".*

Zeharka jasota, hautematen da batzuek arazoak dituztela smartphonearen eta Interneterako konexioaren kostuarekin. Batik bat, pentsio txikiak dituzten alargunek.

**Beldurra.** Ahalduntzerik eza, azken batean, **beldurrean islatzen da.** Egia da adinarekin berez agertzen direla beldurrak, baina hauskortasun-sentsazio sekular horrek badu bere alderdi digitala ere. Gailu bat gaizki erabili eta

hondatzearen beldurra, informazio sentsiblea ematearen beldurra, dirua xahutzearen beldurra, bizimodua korapilatzearen beldurra... Erratzearen beldurra.

*"Beldur naiz ez ote dudan ukitu behar ez dudan botoi bat ukituko".*

*"Irteerarik gabeko lorategi batean sartuko naizen beldur naiz".*

*"Ezezaguna denari beldurra diogu, beti lan egin dugu zertan ari garen jakinda, eta orain ez da horrela gertatzen!".*

### **Gizarte-diseinurik gabeko teknologia.**

*"Osakidetzaren osasun-karpeta bluff bat da...".*

**Ezin bada erabili, ez da erabilgarria.** Teknologia eta haren aplikazioak, kasu gehienetan, merkatuko logikari jarraituta garatu dira soilik. Hortaz, ez da harritzekoa gizarte-diseinurik ez izatea eta, hortaz, irisgarritasun<sup>7</sup> eta erabilgarritasun<sup>8</sup> falta izatea.

Hori dela eta, jaso da aplikazio erabilgarriagoak eta irisgarriagoak egitearen

---

<sup>7</sup> Irisgarritasuna: eskaintzen diren edukietara sartzeko erraztasuna edo zailtasuna.

<sup>8</sup> Erabilgarritasuna: teknologia mota bat (produktu edo aplikazio bat) erabiltzeko erraztasun-maila eta erabilera horrek erabiltzailearengan sortzen duen gogobetetasun mota.



beharra. Premia hori are handiagoa da lehen mailako zerbitzuetan, hala nola osasun-zerbitzuan.

*“Zaila da Osakidetzaren osasun-karpetara sartzea,  
erabilgaitza da eta ulergaitza da”.*

Nabarmena da, halaber, sistema eragileen bertsio ugari egoteak eta etengabe eguneratzeak zaildu egiten duela ezagutzak transmititzea, eta, gainera, aplikazioen edo funtzionalitateen erabilgarritasuna aldatzen duela, baita batzuetan funtzionalitate nagusien erabilgarritasuna ere (irisgarritasun-aukerak, adibidez).

**Ulertezintasun teknologikoa dago.** Kontzeptu teknologikoen gainezka egin dute, eta ez dakigu horien esanahia edo ezin ditugu kuantifikatu: biltegiatzea, memoria, gigabyte, wifi, router, WhatsApp, hodeia, Android, 4G ...

Neologismoen eta termino teknikoen gehiegikeria eta pilaketa hori oztopoa dira digitalizazioan. Bertigo hori zuzenean aitortu daitezke, edo ez, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien gaitzespen ez oso zehatza baina aurrez aurrekoa adieraz daitezke.

*“Teknologiaren arloan hainbeste sigla dago ez  
naizen ezertaz jabetzen”.*

**Segurtasun-gabezia digitala.**

“Pantaila blokeatzea? Zer da hori?”

Smartphonea telefono baten bilakaera naturaltzat hartzen da, benetan hala ez denean. Smartphonea, berez, ordenagailu indartsua da, Internetarako konexioa duena eta datuak eta baimenak lortzeko diseinatutako softwarea duena. Eta gainera deiak egiten ditu.

Hartara, terminalei eta hodeiko espazioari gero eta informazio gehiago (pertsonala, finantzarioa) fidatzeko joera nagusi da. Eta testuinguru horretan segurtasun digitalerako hiru arrisku daude:

- A. Itxuraz, oso gutxik hartzen dituzte segurtasun-neurriak haien smartphoneetan, hala nola pantaila blokeatzea.
- B. Antza denez, oso gutxik dakite haien Google-kontuko erabiltzaile-izena eta pasahitza.

*“Asko mintzatzen da enpresa-segurtasunaz, baina  
nork irakasten digu segurtasun pertsonalaren  
arloan?”*

- C. Ez da “hodeiaren” kontzeptua ezagutzen, ezta Interneten sortutako informazio guztiaren babesa edo babeskopiaren kontzeptua ere.

*“Gauzak bidali nahi ditut hodeira, baina ez dakit  
nola egiten den”.*

Nolanahi ere, pertsonak hautemandako arriskurik handiena norbaitek kontrolatu, behatu eta espiatzen duen sentrazioa da.

*“Teknologiaren aurka altxatzen naiz, ez dut gogoko,  
ez naute kontrolatu behar... Gehiegi zelatatzen dute”.*

## 5. LABURPENA ETA ONDORIOAK

1. Eskuragarri dauden azterketek eta kopuruek adinekoen gizarte-konexio digitalaren zertzeladaren bat ematen dute, baina, gaur egun, ez dute adinekoen gizarte-konexio digitalaren irudi zehatza eskaintzen.
2. Konfinamenduak izugarri handitu du tresna teknologikoen erabilera, batez ere WhatsAppren eta bideodeien erabilera. Eta konfinamenduaren ondoren, horien erabilera finkatu dela eta geratzeko etorri direla ematen du.
3. Pertsona batzuk oso gogobeteta daude telefono bidezko gizarte-harreman eta -konexio "tradizionalekin".
4. Eztabaidan oso gaineratik aipatzen den gaia den arren, ezin da estandarizatu gizarte-konexio digital bat edo fisiko bat noiz den egokia edo nahikoa; guztiz subjektiboa da eta pertsona bakoitzaren arabera da.
5. Teknologia eta transformazio digitalak zentzua dute soilik erabilera praktikoa eta aplikagarria badute. Eta horretarako oinarritzkoa da beste pertsona batzuekiko konexioa.
6. Kulturaren eta erlijioaren arloko kezkak garrantzi handiko motibazioa izan daitezke digitalizaziora begira.
7. Erronka berriei aurre egiteko garaian, ahalduntze-gabeziak, beldurrak eta segurtasunik ezak nabarmen oztopatzen dute gaitasunen garapena.
8. Eskaintzen diren teknologia eta aplikazioek, batik bat oinarritzko zerbitzuekin lotzen direnek, erabilgarriak eta irisgarriak izan beharko dute.

9. Telekomunikazioetako operadoreek ez dute pertsona askoren premietara egokitzen den Interneteko eskaintzarik egiten.
10. Segurtasun digitalaren arloan arazo larria ari da sortzen, ez baitira segurtasun-jarraibiderik oinarritzkoenak ere ezagutzen eta, aldi berean, smartphonean gero eta informazio gehiago ari baita biltzen.
11. Oso kultura-transformazio azkarreko eta aldakorreko testuinguruan antolatu behar dira adineko pertsonen gaitasun eta konexio digitala handitzeko ekintzak. Testuinguru horretan, oraindik ez dago gauzak egiteko moduari buruzko jarraibide argirik, eta trebakuntza digitalera bideratutako ekintzek aintzat hartu behar dute beste modu batean ikasi behar dela —horrek berekin dakartzan erronka kulturei eta psikologikoei ekin beharko zaie—.
12. Prestakuntza-eskari argia egiten da, baina ahalduntzearen bidetik. Prestakuntza horrek hurbilekoa, praktikoa eta oinarritzkoa izan beharko du. Transformazio digitalak bat etorri beharko du kultura-transformazioarekin, betiere adineko pertsonen ikuspegitik. **Konexio digitalerako gaitasunak oinarrituko dira, ezagutzak eskuratzean ez ezik, pentsatzeko modua aldatzean eta beldurrak gainditzean ere bai.**

## ERANSKINAK

### BIBLIOGRAFIA

---

Eustat (2018). Informazioaren gizartearen panorama.

Orkestra – Deustuko Unibertsitatea (2019). Ekonomia eta gizarte digitalak Euskal Herrian.

Matia Fundazioa, Institutu Gerontologikoa (2020). Bakardadeak txostena.

Arias Fernández, E., Lirio Castro, J., Alonso González, D., Herranz Aguayo, I. (2018). Acceso y uso de las TIC de las mujeres mayores de la Europa Comunitaria. Prisma Social aldizkaria. 21. zk.

Isek, Igartek, pr4 tecnología social (2019). Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategia.

Osasunaren Mundu Erakundea (2001): Funtzionamenduaren, Desgaitasunaren eta Osasunaren Nazioarteko Sailkapena.

## **ELKARRIZKETAREN GIDOIA**

---

### **HASIERA...**

1. Aurkezpena, APTES eta Kutxa Fundazioa.
2. Iruzkina. "Egungo egoera benetan erabakigarria ari da izaten guztientzat, baita adinekoentzat ere... Eta, batzuetan, WhatsAppa, adibidez, erabiltzeko bultzada izaten ari da..."

### **GAIAN SARTZEKO...**

3. Ba al duzu smartphonerik (botoirik gabeko telefonorik) edo tabletarik? (Erantzuna ezezkoa bada, Zergatik?) (Erantzuna baiezkoa bada, zergatik? Noiztik?)
4. Smartphonerik ez duten pertsonentzat. Zure inguruan zuk bezala smartphonerik ez duen jende gehiago dago ala gehiengoak badu? Zer esaten dizute?
5. Telefonoa oparia al da? (PATATA bat den hipotesia)
6. Ba al duzu Internetik telefonoan (wifia edo datuak)? (Ez dakizu? Whatsapp-mezuak jasotzen dituzu?)
7. Etxean jende gehiagorekin bizi al zara? Norekin?

### **SOILIK ON LINE DAUDENENTZAT**

8. WhatsAppari buruz ari garela, erabiltzen al duzu? Norekin? Zertarako?
9. Beste aplikazioen bat erabiltzen al duzu komunikatzeko edo informatzeko (Twitter...)? Eta denbora-pasarako? (Sare sozialetan badabil, galdetu edukiak sortzen dituen edo soilik kontsumitzen dituen?)
10. Eta urrunago joanda, ba al duzu etxean bozgorailu adimendunik? Eskumuturreko adimendunik? (Uste dut hemen ez dela interesatzen Beti On zerbitzuari buruzko erreferentziak egitea... baina bai JARRERAK, BELDURRAK ezagutzea).

11. Telefonoa pasahitz bidez babestuta al duzu (pantaila blokeoa)? Ba al dakizu zein den zure google/iphone kontua? Eta zure pasahitza?

#### **SMARTPHONERIK EZ DUTENENTZAT**

12. Zer telefono mota duzu? Zertarako erabiltzen duzu?
13. Zergatik ez duzu Smartphonerik? Zer arrazoi duzu?
14. Smartphone bat eduki nahi al zenuke? Zertarako erabiliko zenuke edo zertarako gustatuko litzaizuke?
15. Zure ustez zer onura ekarriko lizuke smartphone batek? Eta zer arrisku eta zailtasun?
16. Zure inguruan ba al dago telefono adimendunik ez duen beste inor? Zer esaten dizute?
17. Ondo moldatzen al zara zure senitartekoekin edo lagunekin komunikatzeko? Esate baterako, konfinamenduan nola komunikatu zara haiekin?

#### **GUZTIENTZAT (smartphonea erabiltzen badute, non ikusten dituzten zailtasunak, zer gustatuko litzaiekeen. Ez badute erabiltzen, adieraz dezatela teknologiarekin "lotzen diren" irrikak).**

18. Jarraitzen al duzu informazio orokorra? Zer gai interesatzen zaizkizu? Udal-informazioa (ekitaldiak...)? Nola egiten duzu?
19. Eta gehiago zehaztuz, nola komunikatzen zara zure sendagilearekin? Gizarte Zerbitzuekin?
20. Zer maiztasunekin hitz egin duzu azken aste hauetan lagunekin/senitartekoekin? (Erne, puntu kritikoa) Nola (aurrez aurre, telefono bidez, smartphone bidez)? Zailtasunak.



## FOCUS GROUPERAKO GIDOIA

---

Gipuzkoan gizarte-teknologiaren —hau da, pertsonen beharrak konpontzen lagunduko duen teknologiaren— diseinua eta erabilera bultzatzen ari garen gizarte-ekimeneko erakundeentzat, hala nola APTESentzat, garrantzitsua da ezagutza partekatua sortzea, inor ez dezagun atzean utzi eskura ditugun tresna teknologikoen diseinu eta erabilera desegokiaren ondorioz.

APTESek, KUTXA FUNDAZIOAREN babesarekin, adineko pertsonen eta haien gizarte-konexio digitalaren inguruan antolatu nahi du ezagutza. Gaur egun, kasu askotan, teknologia erabiltzeak senideekin, lagunekin eta komunitatearekin gutxieneko lotura mantentzea dakar.

Hori dela eta, planteatzen da Gipuzkoako adineko pertsonen eta haien gizarte-konexio digitalaren errealitaterako honako lehen hurbilketa hau. Helburua da adinekoen gaitasun digitalak, erabilerak, irrikak eta zailtasunak ezagutzea, pertsonak konektatuta mantenduko dituen eta sare komunitarioa mantenduko duen gaitasun digitala bultzatzeko, inor atzean utzi gabe.

1. Norbaitekin fisikoki ez bazaude, nola komunikatzen zara?
2. Teknologiatik zerk motiba zaitzake?
3. Whatsapp, bideodeiak, eta abar erabiltzera behartuta ikusten al duzu zeure burua?
4. Beste pertsona batzuekin elkarrizketa gehiago eta kontaktu handiagoa izatea gustatuko litzaizuke?
5. Beharrezko teknologia duzula uste al duzu?
6. Segurutasunaren arloko oinarrizko ezagutzak al dituzu?
7. Zure ingurune hurbilean teknologiaren erabilera okerra hautematen al

duzu?

8. Ikastea kostatzen al zaizu? Zergatik?